

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusia

2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra jendaurrean jartzea

Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Udalbatzaren Araudi Organikoan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jarrita egongo da, 15 egun baliodunez, 2019ko ekitaldiari dagokion Vitoria-Gasteizko Udalaren Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziak 2020ko ekainaren 22ko aparteko bilkuran emandako aldeko txostenarekin batera.

Herritarrei Laguntzeko Bulegoan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25— aztertu ahal izango dute interesdunek, baita egokitzat jotzen dituzten erreklamazio, eragozpen edo oharrak aurkeztu ere.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 22an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE